

ELKARLANA



**PILAR ETXEBARRIA
LEIOAKO BERRITZEGUNEA**



ELKARLANA Zergatik?

- 1) **GAITASUNAK GARATZEKO.** Dekretuan adierazten diren gaitasunen ezaugarriak ikusten baditugu, elkarlanaren bidez garatzen diren ahalmenak isladatuta ikusiko ditugu, esate baterako:

NORBERAREN AUTONOMIARAKO ETA EKIMENERAKO GAITASUNA


Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna izateko, ikasleak... **proiektu indibidualak nahiz kolektiboak parte hartu behar du**. Norberaren autonomiak eta ekimenak beste pertsona batzuen parte-hartzea eskatzen duenez, **harremanetarako, lankidetzarako eta talde-lanerako gizarte-trebetasunak izatea eskatzen du gaitasun honek...**

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA

Gaitasun honek aukera emango dio ikasleari **lankidetzajarduerak egiteko...** Gaitasun honek askotariko jakintzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu...batzuk: **norberaren ideiak adieraztea eta gainerako pertsonenak entzutea; solaskidearen ikuspuntua ulertzea, norberaren interesak eta taldearenak batera baloratuz.. Ikasleek elkarrizketara eta negoziatziora jo behar dute...**


- 2) **HOBETO IKASTEKO.** Hurrengo taulan (ikerketa baten emaitza) ikusten da argi eta garbi nola eztabaidak, praktikak eta besteei irakasteak informazioa /edukinen atxikipenaren % handitzen duen.

Informazioa-erretentzioaren prozesatze kognitiboa(Willian Glasser)




- 3) **GAUR EGUNGO GIZARTEAN BIZITZEKO.** Gure eskolaren eredu tradizionala industri gizarte batera egokituta zegoen, non bakoitzak bere lanpostuan lana garatzen duen. Beraz, indibidualtasuna oso baloratu da betidanik. Horretaz gain, nahiz eta ikasgelan ikasle desberdinak izan (aniztasuna beti egon da) homogeneitasuna lortzeko joera izan du irakaskuntzak. Klase bera denontzat izan da beti helburua eta, desberdintasunaren aurrean, ikasleak bere ikas-mailaren arabera kokatzea. Baina taldekatze honek eskatzen du talde bakoitzari edukin desberdinak ematea, beraz, atzeratua zeuden taldeek inoiz ez dute besteen maila luzatzeko aukerarik eta eskola porrota gehiago bermatuta dago. Aldi berean, irakaslearen lanak zailtasun handia du, ikasle guztiei arreta eman ezin dielako.


Gaur egun, informazio-gizartean bizitzen, pertsona bakar batek ezin du inolaz ere oraingo lanbideek eskatzen duten informazio guztia izan. Talde lana ezinbestekoa da eta horretarako prestatu behar ditugu gure ikasleak. Eskola eredu, beraz, aldatzen dago, eskola inklusiboaren bidea jarraitzen du. Ikasleen aniztasuna betikoa da, baina orain, talde lanak baimentzen du gela berean izatea gauza antzekoak egiten.




Nola eman arreta ikasle desberdinei? Gure betiko arazoa konpontzeko irtenbidetariko bat elkarlanaz aritzea da.



EREDUAREN ALDAKETA EGITEKO ZAILTASUN NAGUSIAK

<p>Hona hemen elkarlanean ez aritzeko irakasleok erabiltzen ditugun ideiarik nagusiak...</p>	<p>...eta benetan zer dagoen ideia hauen atzean</p>
<div style="display: flex; flex-wrap: wrap; justify-content: space-around;"> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 15px; padding: 5px; width: 45%;"> <p>“Programa emateari denbora kentzen dio”</p> </div> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 15px; padding: 5px; width: 45%;"> <p>“Materien edukinak ez dira lantzen”</p> </div> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 15px; padding: 5px; width: 45%;"> <p>“Zarata eta gelako gatazkakortasuna sortzen ditu”</p> </div> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 15px; padding: 5px; width: 45%;"> <p>“Ikasle batzuk besteekin lan egitera behartuta daude”</p> </div> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 15px; padding: 5px; width: 45%;"> <p>“Ez da bidezkoa, batzuek beste batzuek baino gehiago lan egiten dute”</p> </div> <div style="border: 1px solid black; border-radius: 15px; padding: 5px; width: 45%;"> <p>“Lehiatzeko gizartean bizi gara”</p> </div> </div>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Ikaskuntzaren ideia indibidualista ■ Inertzia metodologikoak ■ Ikastetxeko antolakuntza tradizionala ■ Edukinak = kontzeptuak ■ Ereduen falta = irakaskuntzaren “begizta” <ul style="list-style-type: none"> ■ Materialak • Irakasleek ez dugu talde lana egiten 

Honako hauek eskolako lan-dinamiken eredu desberdinak dira, non kokatzen zara?:



Gaur egungo irakasleok ez gaude eredu batean edo bestean kokaturik, normalean erdiko bidean ikusten dugu geure burua. Den dena, gainera, ez dago irakasle bakar baten menpe, irtenbideak ikastetxeko antolakuntza mailan, irakasleen arteko koordinazioan eta prestakuntzan ere ikusi behar dira. Elkarlana erreztatzen dituen oinarritzko baldintzak:

- Erratio egokia
- Ikasgelako antolaketa eta ordutegi aproposak
- Ikas-programa praktikoagoak, gaitasunei begira
- Ikasgelako jarduerak aldatzea, elkarlanean aritzeko moduan
- Talde dinamiketan trebatzea
- Esperientzia onak ezagutzea eta elkartrukatzea: [Experiencia real en el aula](#): IES Joan Manuel Zafra, Barcelona, 2008 . Ibañez, V. eta Bargalló, C.

Elkarlanak, aldi berean, bere baldintza propioak ditu, [Johnson irakasleek](#) (elkarlanaren “gurasoak”) adierazten duten bezala :



- **Interdependentzia positiboa:** Taldekide batek ezin ditu beren helburuak lortu, besteek ez badituzte lortzen
- **Aurrez aurreko elkarlagina:** Bakoitzak bere lan propioak garatzeko besteen kolaborazioa beharrezkoa da
- **Norbanako ardura:** Bakoitzak, nahiz eta talde batean egon, bere ardura izan behar du eta, aldi berean, besteek duten ardura ziurtatu
- **Trebetasun sozialak:** Talde batean lanegiteko trebetasunak izan behar ditu ikasleak eta, alderantziz, trebetasunak ikasteko taldean egotea ezinbestekoa da
- **Taldearen hausnarketa:** Taldea hobetzeko eta aurrera egiteko, autoebaluazioa eta autoerregulatzeko tresna propioak ere izan behar ditu

Gehiago sakontzeko: [GIAC](#) (grupo de interés en el AC) edo

ELKARLANAREN ABANTAILAK

Porque es eficaz el AC

- Aniztasuna onartzen da eta ikasle guztien integrazioa laguntzen du
- Oinarrizko gaitasunak garatzen ditu
- Garapen sozioafektiboa laguntzen du
- Ikaslearen inplikazioa eskatzen du
- Motibazioa haunditzen du
- Antzietatea gutxitzen du eta autoestima indartzen du
- Pentsamendu kritikoaren gaitasuna garatzen du
- Partaidetza-lidergoarako prestatzen du
- Eskola errendimendua hobetzen du
- Elkarbizitzaren gaitasunak garatzen ditu



TALDEEN EZAUGARRIAK

“Taldea” kontzeptuak bere ezaugarri propioak ditu. Pertsonak egon gaitzke elkarrekin jarduera ugari egiteko eta talde bat ez izatea. Diskoteka batean dantza egiten badugu, esate baterako, elkarrekin gaude baina nork berean. Baina, dantza talde batean sartuta egonda, koordinazioa ezinbestekoa da, helburu komuna beharrezkoa da, taldekide bakoitzak dena ondo ateratzeko ardura du...ELKARLANA sortzen da.


“ELKARREKIN EGOTEAK EZ DU TALDEA SORTZEN ”

Gauza bat da ikasleak erabaki bat hartzeko **noizean behin** lan taldeetan egotea da (klaseko delegatua aukeratzeko momentuan, adibidez) , beste bat noizean behin lan bat **puntuale taldeka** egitea (egun batean laborategiko praktikan, e.b.) eta beste gauza desberdina da gela osoa **normalean lantaldeetan** egituratuta izatea.

Talde batek bi dimentsio nagusi ditu :



**ESKUHARTZE MAILAK Elkarlana ikasgelan garatzeko
(Proposamena Pere Pujolàs eta bere taldearengan moldatuta
Laboratorio de Psicopedagogía. Universidad de Vic)**



IKASTURTEAN

1. Ebaluazioa	2. Ebaluazioa	3. Ebaluazioa
Taldeak noizean behin	Talde finkoak	Talde finkoak
Jarduera batzuetan	Elkarlana dinamika sinpleak	Elkarlana dinamika konplexuak
Jarduerak ondo prestatu behar dira, arrakasta lortzeko aukera modukoak	Jarduera bakoitzak bere dinamika zehatza izanez	Jarduerak proiektu batean integratuta edo atazen sekuentziaren bidez
Klase-saio normalak, noizean behin elkar-jarduera bat	Klase-saioak ikas sekuentzia kooperatiboarekin antolatuta	Klase-saioak proiektu bat egiteko sekuentziaturik
A -Taldea indartu		
C-Taldean lan egiten irakatsi		
	B -Taldean lan eginez ikasi	

A – Taldea indartu

Tutoretza arloan egiteko dinamika aproposak dira, baina arloetan ere egin daitezke, gure “toke” ematen badiegu. Giroa “berotzeko” dinamikak dira

a) Elkarreaginarako eta elkarrezagutzarako dinamikak

Helburua: Klasea lantalde bezala barneratzea. Adibideak: Pilota, Lagun borobila, Klaseko gida telefonikoa...

b) Motibazioa lortzeko dinamikak

Helburua: elkarlana norberako lana baino arrakastatsuagoa dela jakinaraztea, hala nola, NASA Jolasa, Kutxen ekoizpena...

c) Partaidetzarako eta akordioetara heltzeko dinamikak

Helburua: akordio edo erabakiak hartzea. Talde nominala, Kolorezko txanoak, DAFO azterketak...

C- Taldean lan egitea irakatsi

Normalean taldeak egiterakoan, noizean behin egiten ditugu, laborategian, irteera didaktikoetan eta abarrean. Halako klase-saioak batzuetan “katartiko” bihurtzen dira, folloi handia sor daiteke ikasleentzat klase bereziak direlako, ikasleak lan talde batean aritzeko ohituratuta ez daudelako. Hau dela eta, irakasle batzuk desanimatzen dira eta dena ikasgela arruntean garatzen dute, ikasgaia gero eta aspergarriagoa egiten.


Horregatik, benetako lantaldeak sortu nahi baditugu, ikasleei taldean lan egiten zuzenean irakatsi behar zaie eta hau elkarren artean elikatzen duten bi prozesutan egiten da: lehendabiziz, talde finkoak, ikasturtean zehar egonkorak, egiten dira, ondo planifikatuta eta ikasgelaren espazioa aproposa jarritz. Tadekatzerik onena 4 ikaslearena da. Bigarren prozesua taldean lan egiteko ikas sekuentzien garatze bera da, “mugimendua ibiliz ikasten da” eta. Taldekatzeari zentsua eman behar diogu.

IKASTURTEAN ZEHAR **TALDE FINKOAK** izateak ESKATZEN DU:

1. Taldeak eratzeko irizpideak
2. Taldearen barneko antolakuntzarako dinamikak
3. Taldearen barneko kudeaketarako baliabideak
4. Ikasgelaren antolaketa

1. **Taldeak eratzeko irizpideak.** Talde bat antolatzeko irizpide batzuk egon daitezke, baina talde egonkorak eratzeko orduan, heterogeneoak egokienak dira. Talde heterogeneoak lortzeko klaseko ikasleak hiru taldetan banatzen dira (ikusirudia). Behin hau eginda, gero, kasu batzuetan, segun zein gaietan, taldeek interesen arabera, esate baterako, bildu ahal dute

1.



Barneko antolakuntza honek ez dio tokirik kentzen libreagoak beste batzuei, hala nola, klasetik kanpo beste estrategiak batzuk honako hauek dira:


- Klaseko laguntza batzordea. Denborali zehatz batean klaseko talde bat besteei laguntza emateaz arduratzen da. Denok hartzen dute parte, txandakatuz.
- Kideen arteko laguntza sarea. Borondatezko taldeak, ONG modukoak, denbora librean laguntza emateko (atsedenaldietan, txangoetan...)

2. Taldearen barneko antolakuntzarako dinamikak

Talde batek ondo funtzionatzeko bere lana planifikatuta izateaz gain, bere barneko antolamendua ere ondo erabakituta izan beharra du. Erabakien artean hurrengo bi hauek beharrezkoak dira eta akordioetara heltzeko, lehen aipatuta dauden talde nominala, kolorezko txanoak, DAFO azterketak eta abarreko dinamikak erabil ditzakete.

2.1 Taldearen arauak. Hemen adibide batzuk daude. Onena talde bakoitzak bereak egitea edo adostatzea izango litazke.

1. Dena partekatu (aldez aurretik baimena eskatuz)
2. Berba egin baino lehen, hitza eskatu
3. Gehiagoaren erabakiak onartu
4. Kideei laguntza eman
5. Laguntza eskatu, beharrezkoa denean
6. Kide baten laguntzari ezetz ez esan
7. Tokatzen zaizkidan atazak bete
8. Taldearen lanetan eta jarduera guztietan parte hartu
9. Isiltasunez lan egin, ahots apalez hitz egin
10. Arau hauek bete eta betearazi



2.2 Rolan edo eginkizunen banaketa. Jarduera batzuetan, taldekide bakoitza izateak lana ahalbideratzen du modu egokian. Rolak aldatu behar dira ebaluazioan zehar, ikasle guztiek lan desberdinetan esperientzia izateko.

- (1) **MODERATZAILEA:** jarduerak zuzentzen ditu eta hitz-txandak errespetatzera behartzen ditu
- (2) **IDAZKARIA-BOZERAMAILEA:** erabakiak eta akordioak idazten ditu eta beste taldeekin edo irakaslearekin komunikatzen da, taldearen kuadernoa gordetzen du...
- (3) **ORDEN-GAINBEGIRALEA:** Ahotsaren tonua kontrolatzen du, dispersioa saihezten du...
- (4) **DENBORA-GAINBEGIRALEA:** eskuhartze denboraldiak kontrolatzen ditu, lanak amaitzeko epeak kontutan hartzen ditu...
- (5) **BEHATZAILEA:** bakoitzari dagozkien rolak betetzea kontrolatzen du
- (6) **KOORDINATZAILEA:** Bere lagunak animatzen ditu, zer egin behar den argi du
- (7) **MATERIALAREN ARDURADUNA:** materiala komuna gordetzen du, besteek materiala ekartzeaz arduratzen du...
- (8)...

2.3 Trebetasun-autoebaluazioak. Ikasleen artean ere, inkestak egin daitezke bakoitzaren taldean lan egiteko trebetasunak aztertzeko eta, emaitzen arabera, falta zaizkionak lantzeko.



3. Taldearen barneko kudeaketarako baliabideak

Talde-plana. Talde bati bere barneko antolamendua eta ebaluazioa egiteko plangintza bat izatea komeni zaio eta plana izateko modu egokia TALDE-KOADERNOA bat da. Era berean, planak ere, nolabait, taldeari nortasuna ematen dio. Koadernoaren arduraduna, noski, beharrezkoa da eta ez beti ikasle bera. Koadernoaren atal nagusiak honako hauek dira:

1. Taldearen izena eta logo

2. Taldekideak eta bakoitzaren eginkizunak

3. Arauak

4. "Talde-plangintzak"

5. "Saioen egunerokoa"

6. Taldearen ebaluazioak


Taldearen "asmo-deklarazioa" da denboraldi zehatz batean (ebaluazi o batean, adibidez). Edukina:

- Bakoitzaren eginkizunak denboraldian
- Norberako konpromisuak taldeak hobeto funtzionatzeko
- Taldearen helburuak

Atal bakoitzak ere bere antolatzeko txantiloiak izan behar ditu.

4. Ikasgelaren antolaketa.

Elkarlana garatzea ez da posiblea ikasgelako altzairuak taldean egiteko antolaturik baldin ez badaude. Hau izan daiteke eragozpen bat, horregatik, irakasle-taldea ados egon behar da



TALDE-KOADERNOA

IZENA	EGINKIZUNA	KONPROMISUAK
Amaia	Materialaren arduraduna	
Jon	Koordinatzailea	
Isabel	Idazkaria	
Andoni	Bozeramaila	

HELBURUAK

Denbora aprobetxatu

Elkarren artean lagundu

Puntualak izan

Nork bere konpromisuak bete

Taldearen funtzionamenduaren berrikuspena

1: OSO ONDO

2: ONDO

3: HOBETU BEHAR

- Guztiok ikasi dugu?
- Denbora ondo erabili dugu?
- Lan garaiz bukatu dugu?
- Elkarren artean lagundu dugu?
- Bakoitzak bere konpromisuak bete ditugu?
- Bakoitzak bere eginkizuna era egokian bete du?

Ondo egin duguna:

Hobetzekoa:

Hurrengo planarako helburuak:.....

B-Taldean lan eginez ikasi

Benetako elkarlana lortzeko, ikas unitateek sekuentzia kooperatiboa izan behar dute eta horretarako ohiko jarduerak talde batean egiteko egokitu beharra daukagu.

Hasiera batean, taldeak prestatzen ditugun bitartean, jardueraren bat egin dezakegu proga moduan , baina baldintza birekin:

- 1) arrakasta lortzeko modukoak izatea, txarto ateratzen bada ondo planifikatuta ez dagoenean, ikasleek esperientza txarra ere aterako dute ondorioz. "Egin nahi dutena" EZ, "Egiten dutena nahi" BAI
- 2) Ikasleek bere burua jarduerak egiteko gai ikustea, beren gaitasunengandik hurbil

Behin beldurra kenduta, hurrengo pausoa ikas-unitateko jarduerak taldean egiteko klabean jartzea izango liriteke. Horretarako, jarduera arruntak jarduera kooperatibo bihurtzeko, DINAMIKA KOOPERATIBO bat gehitu behar zaie:

Jarduera + dinamika = jarduera kooperatiboa

Azken fasean, klaseko taldeak modu honetan aritzeko ohitura hartuta, TEKNIKA KOOPERATIBO KONPLEXUekin has gaitzke. Halako teknikak aproposak dira atazen bidez edo proiektuen bitartez lan egiteko

DINAMIKA KOOPERATIBOAK

Dinamika puntualak dira, denbora laburreko iraupenarekin, aproposak ikas-unitatean zeharkatzeko. Ugari daudenez, hona hemen adibide batzuk:

Gehiago: [El trabajo cooperativo: algunas ideas prácticas. Pere Pujolas](#)

IKAS UNITATEA			
Saioak	IKAS-SEKUENTZIA	EGITURA INDIVIDUALISTA	EGITURA KOOPERATIBOA
0	Aurreideiak atera	Norbakako galdera irekiak	Folio birakaria
1	Testu baten irakurketa	Banakako irakurketa	Elkar-irakurketa
2	Irakaslearen azalpena	Irakaslearen azalpena	Irakaslearen azalpena
3	Ulermenaren egiaztatzea	Nork galdesorta bat / ulermen-galdera idatziak egiten ditu	3 minutuko geldialdia 1-2-4 egitura
4	Ariketak	Nork bere ariketak egiten ditu	Boligrafoak erdian
5	Zuzenketa talde handian	Irakasleak ikasle bat/batzuk arbelera ateratzen du ariketak zuzentzeko	Zenbakia
6	Azken laburpena-sintesia	Nork bere laburpena egiten du edo irakasleak egiten du	Substantzia Hitz jokoa
7	Azken ebaluazioa	Norbanako ebaluazioa	Norbanako ebaluazioa
Ikasleen arteko eragina		0	6

- **Folia birakaria:** irakasleak folio bat banatzen du talde finko bakoitzean. Taldekide batek bere ideiak idazten ditu eta beste bati folioa luzatzen dio. Bigarren honek gauza bera egiten du folioa taldekide guztiengandik pasatu arte. Bakoitzak kolore desberdinetako boligrafoarekin idatz dezake.
- **Elkar-irakurketa:** Testua baten aurrean, taldekide batek lehenengo paragrafoa irakurtzen du. Bigarrenak irakurritakoa laburbiltzen du. Bitartean besteek zuzena den ala ez esaten diote. Gero, bigarren honek hurrengo paragrafoa irakurtzen du. Honela, testua bukatu arte. Ezezaguna den hitz bat agertzen denean hiztegiaren begiratzen da eta talde-glosario batean apuntatzen da.
- **3 minutuko geldialdia:** Irakasleak noizean behin bere azalpena etentzen du eta, hiru minututan, talde bakoitzak azaldutakoari buruzko hausnarketa egiten dute eta hiru galdera prestatzen dituzte. Gero, talde bakoitzak galdera bat aukeratzen eta egiten du txandakatuz galdera guztiak irtenbideratu arte. Galdera bat errepikatzen bada, saltatzen da .
- **1-2-4:** talde finko batean, lehendabiziz ikasle bakoitzak galderak pentsatzen eta idazten ditu, bigarrenen, binaka jarrita, erantzunak elkartrukatzen eta komentatzen dituzte eta, hirugarren fasean, talde osoak erabakitzen du zein den erantzunik egokiena
- **Boligrafoak erdian:** Irakasleak ariketak taldekideen artean banatzen ditu, bat bakoitzari. Lehenengoak berea ozenki irakurtzen du taldearen aurrean eta denon artean pentsatzen eta irtenbideratzen dute. Bitartean boligrafo guztiak mahai erdian kokatzen dituzte ezin dela idatzi adierazteko. Denok zer egin behar den argi daukatenean, orduan bai bakoitzak erantzuna idazten du.
- **Zenbakia:** Irakasleak klase osoari jarduera bat proposatzen dio. Talde bakoitzak egiten du jarduera denon artean, baina bakoitzak zenbaki bat du. Denbora amaiturik, irakasleak zenbaki bat aukeratzen du eta, tokatzen zaionak klasearen aurrean egindakoa azaltzen du. Ondo egiten badu, bere talde osoak puntuak jasotzen dituzte.
- **Substantzia:** Taldekide batek gaiarekin zerikusirik duen esaldi bat idazten eta botatzen du. Denon artean eztabaidatzen da ea ondo dagoen ala ez, zuzentzen dute, birmoldatzen dute, aberazten dute eta abar. Prozesua errepikatzen da taldekide guztiak esaldi bat egin arte. Bukatzeko, denon artean esaldiak orden logiko batean ipintzen dituzte eta bakoitzak bere koadernoan kopiatzen ditu.
- **Hitz jokoa:** Irakasleak gaiari buruzko hitz gako batuk arbelean idazten ditu. Oinarri-taldean, nor hitz bakoitzarekin esaldi bat pentsatu behar du. Gero, "substantzia" teknika jarraitzen da.

TEKNIKA KOOPERATIBO KONPLEXUAK

Oso landuta diren teknikak hauek, klasikoak bibliografian, aproposak dira ikas sekuentzia proiektu, ikerketa, problema irekia, egoera problematikoa, atazen sekuentzia...izango balitz bezala planteatzen denean.

Ezagunenak hauek dira:

1. Ikerketa taldeak ("Group-Investigation")
2. Buruhausgarria ("Jigsaw")
3. Berdinen arteko tutoretza
4. TGT teknika ("Teams-Games-Tournaments")
5. Ikasketa taldeak (Student team learning): erabilgarriena TAI teknika da ("Team Assisted Individualization")

Ikerketa taldeak

1. Oinarrizko taldeak egiten dira
2. Ikasgai bat azpigaletan banatzen da eta talde bakoitzari bat ematen zaio
3. Azpigaletaren garapenaren plana:
 - Lehenengo fasea: Informazioaren bilaketa
 - Bigarren fasea: Informazioaren antolakuntza
 - Hirugarren fasea: Informazioarekin ekoizpena egin
 - Laugarren fasea: Informazioaren komunikazioa (gaiaren aurkezpena beste klaselagunei)
4. Ebaluazioa

Proiektua : **ATMOSFERA**

Maila: DBHko 1

Taldea: _____

Kurtsoa: _____ / _____ Burutzeko aldia: 11 saio

1. FASEA: Informazioaren bilketa

Epea:

Informazioa bilatzea Webean....	Nori
Atmosferaren editura	1.taldea
Aizearen egitura eta propietateak	2.taldea
Izaki bizidunen arnasketa	3.taldea
Atmosferaren kutsadura	4.taldea
Ozonoren geruza	5.taldea

2. FASEA: Informazioaren antolakuntza

Epea:

Ataza	Nori daokio...
Atmosferaren geruzeei buruzko txostena	1.taldea
Aizearen propietateei buruzko txostena	2.taldea
Fotosintesia eta arnasketaren arteko desberdintasuneei buruzko txostena	3.taldea
Kutsatzaileei buruzko txostena	4.taldea
Ozonoren geruzari buruzko txostena	5.taldea

3. FASEA: Ekoizpena

Epea:

Ataza	Nori daokio...
Atmosferaren geruzak: hormairudia	1.taldea
Aizearen propietateak: demostratzeko esperimenduak	2.taldea
Fotosintesia eta arnasketaren arteko desberdintasunak: bi panel	3.taldea
Kutsatzaileak: taula konparatiboa	4.taldea
Ozonoren geruza : gutuna zaintzeko aholkuekin	5.taldea

4. FASEA: Informazioaren komunikazioa

Epea:

Ataza	Nori dagokio...
Lana planifikatu eta klasekideen aurrean ipintzea	Talde guztiak


5. FASEA: Ebaluazioa (proiektuaren zehar tartekatuta)

Talde bakoitzaren txostenak eta ekoizpenak	Irakaslea
Talde bakoitzaren aurkezpena	Taldean arteko ebaluazioa
Lantalde bakoitzaren lan-prosezua	Talde bakoitzak berea


Buruhausgarria

1. Klasea oinarrizko taldeetan banatzen da
2. Ikasgai bat azpigaitan banatzen da. Azpigaien kopurua taldeek dituzten ikasleen kopuru bezalako izan behar
3. Nork tokatu zaion azpigaia prestatzen du
4. Gero, bakoitzak azpigai bera prestatu duten beste taldeen lagunekin biltzen da, "adituen taldeak" eratuz. Talde berri honek gai komunean jartzen du eta ondo prestatzen du.
5. Gero ikasleak bere oinarrizko taldera bueltatzen dira eta bere kideei bere azpigaia azaltzen die.

Eredu atomikoak



hidrosfera



Berdinen arteko tutoretza

1. Irakasleak erabakitzen du nortzuk izango diren ikasle tutoreak eta nortzuk "tutorizatuak". Ikasleei informazioa komunikatzen zaie.
2. Era berean, tutoretza honetarako saioak antolatzen ditu: edukinak, lan-fitxak edo lan-jarduerak, ebaluazio-sistema...
3. Tutoreei prestakuntza ematen die: zer irakatsi, materialak, denboraldiak, koordinazioa...
4. Lehenengo saioetan irakaslea egongo da ere bai
5. Noizean behin tutoreekin eta tutorizatuekin biltzen da

[Esperientzia baten bideoa](#)

TAI ("Team Assisted Individualization")

1. Klasea talde finkoetan banatzen da
2. Ikasle bakoitzak norberako lan plana du, sekuentzia didaktikoan zehar, lortu behar dituen helburuak eta ikas-jarduerak zehaztaturik.
3. Edukinak berak dira guztiontzat, baina ez jarduerak
4. Ikasle bakoitzak bere plana aurrera eramateko ardura hartzen du eta, aldi berean, bere lagunei laguntza emateko konpromisua.
5. Taldeak bere talde-plana garatzen du. Plan honetan guztiok helburuak lortzeko konpromisuak adierazten dituzte
6. Ikas helburu pertsonalak lortzen badituzte eta, gainera, talde bezala hobetzen dira, ikasle bakoitzak puntu gehiago lortzen du bere notan

TGT ("Teams-Games-Tournaments")

1. Talde finkoak egiten dira
2. Irakasleak, gai eman eta gero, gai bati buruzko jolasa prestatzen du: erantzunak eta galderak. Talde bakoitzak prestatzen du gaia jolasari erantzuteko prest
3. Taldeak berrantolatzen dira eta orain ikasleak elkartzen dira bere mailaren arabera, hirukotea
4. Irakasleak hirukote bakoitzari bere mailara egokitutako jolas-txartelak multzo batean eta orri bat erantzun zuzenekin ematen dizkio. Ikasle bakoitzak, banan banan, txartel bat aukeratzen du eta erantzuna ematen saiatzen da. Erantzuna asmatzen badu, txartelarekin geratzen da. Ez badu asmatzen, beste kidearengana pasatzen da txanda eta lortu duen txartel bat txartel-multzora bueltatu behar du.
5. Jokaldiaren irabaslea txartel gehiago lortzen duena da. Honek 6 puntu ematen dizkio bere oinarrizko taldeari, bigarrenak 4 eta hirugarrenak 2.

LIBURUAK-MATERIALAK

- Entramados. Métodos de aprendizaje cooperativo y colaborativo. Monereo, C. y Durán, D. Barcelona, Edebé
- 9 ideas clave. El aprendizaje cooperativo. Pere Pujolás. Graó.
- [La escuela, un lugar para aprender a vivir: experiencias de trabajo cooperativo en el aula](#)
- [Aprendizaje cooperativo](#). Nicolás Uriz (koord.) Nafarroko Hezkuntza Saila
- [El trabajo cooperativo, una clave educativa \(Documento final\)](#). Tema central de Concejo Educativo del curso 2004-2005
- [Actividades para el grupo clase. Angel Sáez](#)
- [Primeros días de clase: recopilación de dinámicas. Cuaderno Intercultural](#)

WEBORRIAK

- [GIAC: grupo de interés en AC](#)
- [Juntos y revueltos](#)
- [Aprentatge entre iguals](#)
- [De estranjis: como empezar con AC](#)